

Kaixo Mendizale Beteranoak:

Hona hemen datorren Otsaikak 16 rako prestatu dugun irtenaldia.

Hau ere, egunak motzak direnez gero, gure inguruko herri gertuen tartean moldatua da. Hain xuxen oraingo hontan Gipuzku eta Bizkaiko mugen gainetik.

Markiña-Jemein herritik irtenda, itsas bazterrean dagoen Debarino.

Eskuin aldean Eibar, Elgoibar, Mendaro, eta abar, ezkerrean Ondarroa eta Moutriku gain begiradan ditugulark.

Markiñatik (80 m), irten eta berealaxe hasten gera gora bidean, eguneko igoera gogorrena egiteko, 400 metrotaraino.

Orain bidea goxatzen da Arnoko gailurreraino iritsi arte, (602 m). Hamar kilometrotan mugaren ondotik eta mendiaren bizkarretik ibiliko gera, Arnoko gurutzea atzean utzi arte. Gora bera txikietan altuera hartzen joango gera.

Orain hasiko gera jaisten, itsasoa aurrean dugularik eta Mutrikura jaisteko tentazioa baztertuz, Debako bidea jarraituko dugu.

Aparain bidegurutzea pasa eta baserri paisaian murgilduko gera herrira iritsi arte.

Bazkaria Deban izango da, Txomin jatetxean, aurekoetatik ezaguna dugun lekuan.

Irteera 7 etan, bixeran, ohiko tokian.